**PROGRAMA**
1411 JUSTIZI ADMINISTRAZIOA

**ARDURADUNA**
04 JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIA; GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

HELBURUA

1. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN GARAPENA ETA OPTIMIZAZIOA.
2. KARRERA JUDIZIAL ETA FISKALEKO KIDEEN ETA IDAZKARI JUDIZIALEN PRESTAKUNTZA..
3. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN EZARPENA BERMATZEA ETA EUSKARA JURIDIKOAREN BATASUNA SUSTATZEA.
4. BAKE JUSTIZIARI LAGUNTZEA GAI HORRETAN ESKUMENA DUTEN ENTITATEEKIN KOORDINATUZ.
5. JUSTIZIAREN EUSKAL AZTERGUNEA GARATZEA.
6. KARRERA JUDIZIALETARAKO OPOSIZIOAK PRESTATZEKO ZENTROA.
7. PLANGINTZA, OBRAK ETA MANTENTZEA.
8. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO GIZA BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA.
9. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA.
10. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN LAN OSASUNA HOBETZEKO JARDUERAK.

BETETZE MAILA

**1.)**

1.- Bulego judiziala antolatzeko eredu berria diseinatu eta sustatzea.

Hori betetzeko Bulego Judizialak eta Fiskalak Antolatzeko Plana onartu da. Horren helburu nagusia Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa aldatzeko abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak ezarritakoa Euskadiko Justizia Administraziorako egokitzea da, Botere Judizialaren Lege Organikoak norberaren antolaketarako ematen dituen aukerak baliatzearen ikuspuntutik.

Plan horren bidez, zera lortu nahi zen: giza baliabideen kudeaketa gertuagoko eta osoago batean sakontzea, prozeduretarako protokoloak ezartzea, eta egituratze eta antolaketa modernoa justizia administrazioko unitate eta zerbitzuen barruan.

Hainbat lan-bilera izan dira Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Euskadin kokatutako Idazkaritza Judizialaren artean, baita fiskalburuekin ere, bulego judizialak eta zerbitzu komunak modernizatu eta kudeatzeko prozesua bultzatzeko xedearekin.

***PROGRAMA***
*1411 ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA*

***RESPONSABLE***
*04 JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL*
*DIRECTORA DE RELACIONES CON LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA; DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS*

*OBJETIVO*

*1. DESARROLLO Y OPTIMIZACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*
*2. FORMACIÓN DE LOS MIEMBROS DE LA CARRERA JUDICIAL Y FISCAL Y DEL CUERPO DE SECRETARIOS JUDICIALES.*
*3. GARANTIZAR LA IMPLANTACIÓN DEL EUSKARA EN LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICA Y PROMOVER LA UNIFICACIÓN DEL LENGUAJE JURÍDÍCO EN DICHO ÁMBITO.*
*4. APOYO A LA JUSTICIA DE PAZ EN COORDINACIÓN CON LAS ENTIDADES COMPETENTES EN LA MATERIA.*
*5. DESARROLLO DEL OBSERVATORIO VASCO DE LA JUSTICIA.*
*6. FOMENTO ESTABILIDAD PROFESIONES JUDICIALES Y DE MÉDICOS FORENSES.*
*7. PLANIFICACIÓN, OBRAS Y MANTENIMIENTO.*
*8. OPTIMIZACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EXISTENTES EN LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*
*9. FORMACIÓN DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*
*10. ACTUACIONES ORIENTADAS A LA MEJORA DE LA SALUD LABORAL DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1.)***

1.- Diseñar e impulsar el nuevo modelo organizativo de la oficina judicial.

Para su cumplimiento se ha aprobado el Plan Organizativo de las Oficinas Judicial y Fiscales, cuyo objetivo general es la adaptación de la Administración de Justicia en Euskadi a lo establecido en la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley Orgánica 6/1985, del Poder Judicial, desde la perspectiva de aprovechar todas las potencialidades autoorganizativas de la reforma de la LOPJ.

Por medio del Plan se ha pretendido profundizar en una gestión más cercana e integral de los recursos humanos, la protocolización de los procedimientos y una estructuración y organización moderna dentro de las unidades y servicios de la administración de justicia.

Se han celebrado multiples reuniones de trabajo entre el Departamento de Justicia del Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi así como con los Fiscales Jefes a fin de impulsar el proceso de modernización y gestión de oficinas judiciales y servicios comunes.

Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko koordinazioa hobetzeko, arlo horri buruzko neurriak jasotzen dituzten ebazpen judizialen koordinazio integraleko zentro bat sortu da, eta 2008ko urriaren erdialdean hasi da lanean. Horrez gain, Etxeko Biolentziaren Biktimak Babesteko Agindua eta Epaiketa Azkarren Agindua ezartzeko batzordeen protokoloak jarraitu eta eguneratzeko lanek aurrera egin dute.

A fin de mejorar la coordinación en materia de violencia contra la mujer, se ha producido la creación de un Centro de Coordinación integral de las resoluciones judiciales que contengan medidas en esta materia, centro que ha empezado a funcionar a mediados del mes de octubre de 2008. También se han proseguido los trabajos de seguimiento y actualización de los Protocolos de las comisiones de Implantación de la Orden de Protección a las Víctimas de Violencia doméstica y de Juicios Rápidos.

Horrez gain, lankidetzan jardun dugu tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmena egiteko eta sinatzeko. Gure Erkidegoko agintari gorenek 2001eko urrian sinatutako lehenengo erakunde arteko Akordioa eguneratu eta egokitzen du Akordio berri honek.

Además, se ha colaborado en la elaboración y suscripción del II Acuerdo interinstitucional para la mejora en la atención a las mujeres víctimas de maltrato y de violencia sexual. Este nuevo acuerdo actualiza y adecua el primer Acuerdo interinstitucional que se suscribió en octubre de 2001 por parte de las máximas autoridades de nuestra Comunidad.

Halaber, artxibategi judizialetan jarduera- eta modernizazio-planarekin jarraitu dugu, baldintzak betetzen dituzten espediente guztiak Xahuketaren Batzarraren esku jartzeko.

También se ha dado continuidad al plan de actuación y modernización en los Archivos Judiciales, a fin de poner a disposición de la Junta de Expurgo todos aquellos expedientes que cumplan los requisitos exigidos.

Azkenik, erregistro zibilak hobetzeko programa egin da, euskalduntzea bultzatuz, bake epaitegiekin lankidetzan, eta horien informatizazio mailakatuari ekin zaio, Justizia Ministerioarekin lankidetzan.

Finalmente, se ha realizado un programa de mejora para los registros civiles, fomentándose su euskaldunización, en colaboración con los Juzgados de paz, y se ha dado comienzo a la informatización gradual de los mismos en colaboración con el Ministerio de Justicia.

2.- Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen eta bere zerbitzuen antolakuntza-eredua ezartzea.

2.- Implantar el modelo organizativo del Instituto Vasco de Medicina Legal y de los servicios del mismo.

Auzitegiko medikuntzaren arloan, behin Auzitegiko Medikuntzako Erakundea sortu ostean, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 1eko 328/1998 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko auzitegiko medikuntzari antolakuntza- egitura berria ematea helburu zuela), antolatzeko sistema berria onartu zen; sistema berria 2002an sartu zen indarrean, eta hurrengo urteetan, 2008. urtea barne, sendotu egin da.

En el ámbito de la Medicina Forense, tras la creación del Instituto de Medicina legal, mediante Decreto del Gobierno Vasco 328/1998, de 1 de diciembre y cuya finalidad era dotar de una nueva estructura organizativa a la medicina legal del País Vasco, se procedió a la aprobación del nuevo sistema de organización que entró en vigor el año 2002 y se ha consolidado a lo largo de los años siguientes, incluido 2008.

2008. urtean behin betiko finkatu da Auzitegiko Laborategiaren egitura eta osaera. Hori egin ahal izan da hainbat hornidura eskuratu ahal izan delako, eta teknika berriak erabiltzen hasi direlako.

El año 2008 ha significado la consolidación definitiva de la estructura y la formación del Laboratorio Forense. Esto ha sido posible a través de la adquisición de distintas dotaciones y la utilización de nuevas técnicas incorporadas.

Era berean, eta Bizkaiko Zuzendariordetzari dagokionez, ekipamendu berria jarri da patologiaren arloan, eskaner bat eskuratuta, eta laborategiko ekipamendua eskuratzen jarraitu da 2008. urtean.

Asimismo, y por lo que a la Subdirección de Bizkaia se refiere, se ha dotado de nuevo equipamiento al área de patología con la adquisición de un scaner y,asimismo, se ha continuado con la equipación del área de laboratorio durante 2008.

Auzitegiko medikuei prestakuntza espezializatua eskaintzeko prozesuarekin jarraitu da, Osakidetzarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, hiru lurralde historikoetan Psikiatria eta Anatomia Patologikoaren arloetarako egin den eta 2009. urtean gauzatuko den deialdia dela medio.

Se ha continuado con el proceso de formación especializada de los médicos forenses ,mediante el convenio suscrito con el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, a través de la convocatoria en las áreas de Psiquiatría y Anatomía Patológica en los tres Territorios Históricos y que se ejecutará en 2009.

Jarduera horiek guztiak koordinatzeko, behar ziren lan-saioak egin dira auzitegiko medikuekin, sindikatuetako ordezkariekin eta Osakidetzako arduradunekin.

A fin de coordinar todas estas acciones se han mantenido las correspondientes sesiones de trabajo con los médicos-forenses, representantes sindicales y se han continuado los contactos con los responsables del Servicio Vasco de Salud- Osakidetza.

3.- Agirien eta tramite judizialen normalizazioa sustatzea

3.- Promover la normalización de documentos y trámites judiciales

2003an, Tramitatze Eskemak eta Agirien Ereduak Normalizatzeko Batzordeen lan-bilerak egin dira (30 bilera inguru).

Se ha continuado con el estudio de reformas de textos legales y además se han mantenido reuniones de trabajo para continuar con la normalización de documentos y trámites judiciales.

4.- Justizia Administrazioa informatizatzeko Laugarren Plana garatzea.

4. Abordar el desarrollo del Cuarto Plan de Informatización de la Administración de Justicia

Informatika Judizialaren Laugarren Planari ekin zaio 2008. urtean; teknologia berriak Euskadiko Justizia Administrazioan sartzeko plana da. Benetako espediente judizial elektroniko bat sortzea da

Durante el año 2008 se ha puesto en marcha el cuarto plan de Informática Judicial, un plan basado en el área de las nuevas tecnologías en el entorno de la Administración de Justicia en

plan honen helburu nagusienetako bat eta, ildo horretan, lanean hasi gara orain arte paperean edo kanpoko euskarrietan zeuden elementuak —esate baterako entzunaldietako grabazioak eta profesionalek epaitegietan aurkeztutako agiriak— Justiziabat aplikazioko espediente judizialean sartzeko. Horrez gain, hiriburuetako eta barruti judizial txikiagoren bateko entzunaldi-aretoak eta erabilera anitzeko aretoak hornitzen hasi gara eta lehenengo eskanerrak jarri ditugu bulego judizialetan. Era berean, profesionalek erabiltzen duten JustiziaSip aplikazioaren bidez idazkiak bide telematikotik sartzea sustatu dugu, eta beharrezko aplikazioak garatu dira, martxan jartzeko protokoloetan oinarrituta.

Horrekin batera, kanpoko segurtasun-sistemak sendotzen jarraitu dugu, baita barruko Windows sarea ere, baliabideak hobeto aprobetxatu ahal izateko. Gainera, sare judiziala aztertzen jarraitu dugu, horrek guztiak irudi, IP ahots, datu, eta abarren inguruan sorrarazten dituen trafiko-beharrizan berrietara egokitzeko. Lehen zatia 2008. urtean ezarri da, eta 2009.ean amaituko da.

Bestalde, zuzendaritzako hizkuntza-normalkuntzako planari zeharka ematen zaion laguntzaren ondorioz, Justiziabat aplikazioan itzulpen-tresna aurreratuak sartzen jarraitu dugu.

1. Informatika Planaren Segimenduko Batzorde Mistoaren bilerak.

2. Estatuko gainerako administrazioekin eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin bilerak, informatika-arloko koordinazio teknikorako

Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko Informatika Batzordearekin lankidetzan aritzen jarraitu dugu, eta hainbat gairi buruzko Lan Taldetan parte hartu, hala nola: Segurtasun Auditoretza, Etxeko Biolentziatik Babesteko aginduen Bidalketa, ebazpen judizialen transferentzia, Cendoj, bateragarritasun testa, beste erkidegoetara exhortoak bidaltzea, etab. Sortu berri diren beste batzuez gainera, besteak beste, Estatistika Batzorde Nazionala, dokumentu elektronikoen trukea eta beterazpen-aginduak.

Hainbat bilera izan ditugu EAEko Erregistro Zibila informatizatzeko, batez ere elebitasunari eta arlo horretan red.es eta Justizia Ministerioarekin sinatutako hitzarmenari erreparatuz; horrez gain, Inforeg aplikazioa Eibarko Barruti Judizialean ezartzeari ekin diogu.

Gune Neutro Judizialaren bidez zerbitzua zabaltzen jarraitu dugu.

3. Informatika-aplikazioei euskarria ematen zaien erabiltzaileak.

Justizia barruko erabiltzaile guztiei euskarri informatikoa eman zaie (2.000 funtzionario), epaile, idazkari judizial eta fiskalei (400), eta profesional guztiei (abokatu eta prokuradoreak), Justiziako Extranet-en bidez eskura baitute Profesionalentzako Informazio Zerbitzua eta Agiri bidezko Informazio Zerbitzua.

4. Bulego judizialak eta fiskaltzak informatizatzeko garatutako moduluak eta aplikazioak.

Batetik, aurreko urteetan instalatutako moduluak hobetzen jarraitu dugu, erabiltzaileen beharrengatik zein Legearen

Euskadi. La creación de un expediente electrónico judicial real es uno de los principales objetivos de este plan y, en esta línea, se han iniciado los primeros trabajos para la incorporación de elementos hasta ahora en papel o soportes externos en el expediente judicial de la aplicación justiziabat, como son las grabaciones de las vistas, la documentación presentada por los profesionales en los juzgados, iniciando el equipamiento de material en las salas de vistas y salas multiusos en las capitales y en algún partido judicial menor, así como incorporando los primeros escáneres a las oficinas judiciales. Asimismo, se ha potenciado la entrada de escritos por vía telemática desde la aplicación JustiziaSip que utilizan los profesionales, habiéndose desarrollado las aplicaciones necesarias en base a los protocolos establecidos para su funcionamiento.

Paralelamente, se han continuado con el refuerzo de los sistemas de seguridad externos así como la red Windows interna para un mejor aprovechamiento de los recursos. Además, se ha continuado con el estudio de la red judicial para adaptarla a las nuevas necesidades de tráfico que todo ello supone, con respecto a imágenes, voz sobre ip, datos, etc… implantándose una primera parte durante 2008 y que se culminará en el 2009.

Por otro lado, se ha continuado con la incorporación de herramientas de traducción avanzadas en la aplicación justiziabat, como consecuencia del apoyo que se presta indirectamente al plan de normalización lingüística de la dirección.

1. Reuniones de la Comisión Mixta de Seguimiento del Plan Informático.

2. Reuniones para la coordinación técnica en materia de informática con el resto de Administraciones del Estado y del Consejo General del Poder Judicial

Se ha continuado la colaboración con la Comisión de Informática del Consejo General del Poder Judicial, participando en varios Grupos de Trabajo como los relacionados con la Auditoría de Seguridad, Envio de ordenes de Protección de Violencia Doméstica, transferecencia de resoluciones judiciales la Cendoj, Test de compatibilidad, envio de exhortos a otras comunidades, etc , y otros de nueva creación como la Comisión Nacional de estadística, intercambio de documentos electrónicos y ejecutorias.

Se han mantenido diversas reuniones para la Informatización del Registro Civil en el País Vasco, sobre todo relacionadas con el bilingüismo y con el convenio firmado con red.es y Ministerio de Justicia en este ámbitoy se ha iniciado la implantación de la aplicación Inforeg en el Partido Judicial de Eibar.

Se ha continuado con la ampliación de servicios a través del Punto Neutro Judicial.

3. Usuarios a los que se proporciona soporte de las aplicaciones en materia informática.

Se ha prestado soporte a todos los usuarios internos de la justicia (2.000 funcionarios), Jueces, Secretarios Judiciales y Fiscales (400), y todos los profesionales (Abogados y Procuradores) dado que ya tienen a su disposición El Servicio de Información Documental y el Servicio de Información a Profesionales a través de la Extranet de Justicia.

4. Módulos y aplicaciones desarrolladas para la informatización de las Oficinas Judiciales y Fiscalías.

Se ha continuado, por un lado con la mejora de los modulos instalados en años anteriores añadiendoles nuevas

aldaketengatik sortzen diren funtzionaltasun berriak erantsiz. Horrez gain, JustiziaBateko modulu berriak ezartzen jarraitu da, bai Gasteizko organo judizialetan bai Donostiakoetan; Bizkaian, berriz, JustiziaBat-eko modulu erkideak ezartzeari ekin diogu.

funcionalidades que surgen tanto por las necesidades de los usuarios como por cambios de la Ley. Además se ha continuado con la implantación de nuevos módulos de JustiziaBat tanto en los órganos judiciales de Vitoria como en Donosti y se ha iniciado la implantación de módulos comunes de JustiziaBat en Bizkaia.

Bestalde, Bulego Judizial Berria abian jarri denez, JustiziaBat-eko moduluak antolamendu berrira egokitzeko lanak aurrera doaz.

Por otro lado, y dada la entrada en funcionamiento de la Nueva Oficina Judicial, se van afianzando los trabajos de actualización de los módulos de JustiziaBat a la nueva organización.

5. Antolamendu-eredu berriaren ezarpena

5. Implantación del nuevo modelo organizativo

Antolaketa-eredu berri bat ezartzeko beharrezkoa da beti alderdi desberdinen arteko adostasuna. Horregatik, hainbat bilera antolatu dira maila guztietan (Justizia Administrazioko langile adituak eta teknologia berrien garapenaren langile adituak), etorkizunean egingo den ezarpenaren arrakasta ziurtatzeko.

La implantación de un nuevo modelo organizativo siempre necesita del acuerdo entre diferentes partes, esto ha llevado a la organización de diferentes reuniones a todos los niveles (personal experto de la administración de justicia y personal experto en el desarrollo de nuevas tecnologías) para asegurar el éxito en su futura implantación.

Horrez gain, kontuan izan behar da aurten hainbat zerbitzari gaineratu direla, eta haien errendimendua ziurtatzeko probatu eta aztertu behar izan direla.

Se debe tener en cuenta que este año además se han añadido una serie de Servidores que han tenido que ser probados y testeados para asegurar su rendimiento.

6. Renting-prozesua gauzatzea

6. Completar el proceso de renting

2003. urtetik Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza atxikita dago Eusko jaurlaritzaren eta EJIE Sozietate Publikoaren (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea - Sociedad Informática del Gobierno Vasco) artean hitzartutako kontratu-programan ezarritako baldintzei.

Desde el año 2003 la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia está adherida a las condiciones establecidas en el Contrato-Programa acordado entre el Gobierno Vasco y Sociedad Publica EJIE (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea - Sociedad Informática del Gobierno Vasco).

Laburbilduz, aurten Renting moduan kudeatutako elementuak honakoak izan dira:

Berriak: 100 PC, 75 inprimagailu, 4 eskaner.
Mantenimendua: 1.760 PC, 310 inprimagailu.
Aldatuak: 300 PC, 50 inprimagailu

Como resumen, indicar que durante este año los elementos gestionados en modalidad de Renting han sido:

Nuevos: 100 PCs, 75 Impresoras, 4 Scanners.
En mantenimiento: 1.760 PCs, 310 Impresoras.
Renovados:300 PCs, 50 Impresoras.

7. Jendeak eta profesionalek informazio judiziala eskuratzeko guneak ezartzea.

7. Instalación de puntos de información judicial al público y profesionales.

Herritarrek informazioa eskuratzeko eta izapide txikiak egiteko kioskoak jarri ditugu hiru hiriburuetako eraikin judizialetan.

Se han adquirido kioscos como puntos de información y pequeños trámites para uso de los ciudadanos en tres de los edificios judiciales de las tres capitales.

Bestalde, profesionalak JustiziaNet-en bidez sar daitezke zerbitzu berrietara, eta jakinarazpenak eta idazkien aurkezpena elektronikoki egiteko garapenak egin ditugu.

Por otro lado, los profesionales pueden acceder a través de JustiziaNet a nuevos servicios y se han establecido los desarrollos para incorporar la notificación y presentación de escritos electrónica.

8. Sinadura elektronikoa ezartzea.

8. Implantación de la Firma Electrónica

Sinadura elektronikoa ezartzeko lanekin jarraitu dugu; horretarako, ezarritako JustiziaBat-eko eredu berriek barruan daramatzate, modu elektronikoan, Bulego Judizialaren Zigilua eta onartutako Sinadura Elektronikoa.

Se ha continuado con los trabajos de implantación de la Firma Electrónica, para ello los nuevos módulos implantados de JustiziaBat, llevan incorporado el Sello de la Oficina Judicial de forma Electrónica y la Firma Electrónica reconocida.

Horrez gain, profesionalak Extranet-era Sinadura Digitalaren bidez baino ez sartzea lortuta, sinadura elektroniko aurreratua ezarri da, 2009. urtetik aurrera profesionalek idazkiak telematikaz sinatu eta epaitegietara bidali ahal izan ditzaten.

Además una vez conseguido que el acceso de los Profesionales a la Extranet de Justicia se realice sólo y exclusivamente a través de la Firma Digital, se ha incorporado la FEA para que los profesionales puedan firmar y enviar escritos a los juzgados de forma telemática a partir del 2009.

9. Justiziarekiko Lankidetzarako Zerbitzuaren eta Gazte Justiziaren informatizazioa.

9. Informatización Servicios Cooperación con la Justizia y Justicia Juvenil.

Babes Aginduak eta Zuhurtziako Neurrien Autoak Babes Aginduen Koordinaziorako Zentrora bidaltzeko modua hobetzen jarraitu dugu.

5- Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko Dokumentazio Judizialeko Zentroarekiko lankidetza.

Aurreko urteetan izandako lankidetzarekin jarraitu dugu, bere garaian sinatutako hitzarmenaren babespean, Euskadiko Justizia Administrazioaren ebazpen judizialak aldizka Cendoj-era bidaliz, telematika bidez.

6- Justizia Administrazioaren web-orria garatzea eta Jakinarazpenen Sare Judiziala garatzen jarraitzea.

1.- Interneterako sarbide korporatiboa.

Epaile, fiskal eta idazkari judizial guztiek interneterako sarbidea dute euren lanpostuetatik. Gainera, egoitza judizialetan dauden Justizia Administrazioko langile guztiek intranet judizialerako sarbidea dute eta interes juridikoko internet-helbideetara sar daitezke.

2.- Justizia.net web-orriaren edukiak eta sarbideak egiteko bilerak

JustiziaNet justiziako erreferentziako atarien arteko bat da, etengabe aztertzen eta hobetzen ari delako. Hori dela eta, “bizia” izan behar du; horretarako, beharrezkoa da profesionalen, Justizia Administrazioko langileen eta teknikarien iritzia kontuan hartzea. Eta horregatik, hain zuzen ere, aldizkako bilerak izan ditugu, aurrerapenak eta hobekuntzak egiten jarraitzeko.

3.- Extranet eta intranet garatzea.

Abokatu eta prokuradoreentzako diren JustiziaSIP-eko (profesionalentzako informazioa) eta JustiziaSID-eko (agiri-bidezko informazio-zerbitzua) Extranet hobetzen jarraitu dugu etengabe. Zerbitzu horiek, gainera, Sinadura Digitala sartu dute.

Bake-epaitegietan lan egiten duten langileen eskura dagoen Extranet-a eduki gehiagoz hornitzeko prozesuarekin jarraitu dugu. Horrez gain, Intranet bidezko sarreraren erabilera egonkortu da, Justizia Administrazioarekiko Zuzendaritzak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzerakoan Erabiltzaileen Arretarako Zerbitzuari sortzen zaizkion informatika arazoak konpontzen laguntzeko.

Sakontasunez landu den Intraneteko zerbitzuetako bat e-learning plataforma da, eta hori zehaztu eta ezarrita geratu da 2009. urtetik aurrera online prestakuntzako ikastaroak ezartzeari begira.

Intraneti dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazio osoaren lan-tresna bihurtu da, eta ematen dituen zerbitzuak etengabe ugaltzen (funtzionaltasun berriak erantsiz) eta hobetzen ari da.

7. Zinpeko Epaimahaiari buruzko Lege Organikoa betetzeko behar diren diruzko jarduerak erabiltzea.

2008ko ekitaldiaan, Euskal Autonomia Erkidegoan zinpeko epaimahaia erabilita 3 judizio egin dira, eta horiek sortutako mantenu eta ostatu premia guztiak asebete dira, baita legeak

Se ha continuado con la mejora del envio de Ordenes de Protección y Autos de Medidas Cautelares al Centro de Coordinación de Ordenes de Protección.

5- Colaboración con el Centro de Documentación Judicial del Consejo General del Poder Judicial.

Se ha continuado con la colaboración que se ha mantenido en años anteriores al amparo del convenio suscrito en su día, realizando periódicamente la transferencia telemática de las resoluciones judiciales de la Administración de Justicia en Euskadi hacia el Cendoj.

6- Desarrollar la página Web de la Administración de Justicia y continuar el desarrollo de la red Judicial de Comunicaciones.

1.- Acceso corporativo a Internet.

Todos los Jueces, Fiscales y Secretarios Judiciales, disponen de acceso a Internet desde sus puestos de trabajo. Además, todo el personal de la Administración de Justicia sito en las sedes judiciales dispone de acceso a la intranet judicial y a direcciones de internet de interés jurídico.

2.- Reuniones elaboración contenidos y accesos Página Web, Justizia.net

JustiziaNet está considerado como uno de los portales referentes de la Justicia, ello es debido a que continuamente se halla en proceso de revisión y mejora, debe ser algo “vivo”, para ello es necesario contar con la opinión de los profesionales, de personal de la administración de Justicia y de personal técnico por lo que se ha continuado manteniendo reuniones periódicas que nos permitan avanzar y mejorar.

3.- Desarrollo Extranet e Intranet.

Se ha mantenido una mejora continua de la Extranet de los Servicios de JustiziaSIP (Información a los Profesionales) y JustiziaSID (Servicio de Información Documental) para Abogados y procuradores, además estos servicios incorporan la Firma Digital.

Se ha continuado con el proceso de dotar de mayor contenido a la Extranet a la que tiene acceso el personal que desempeña su trabajo en los Juzgados de Paz. Además se ha estabilizado el uso del acceso a través de la Intraner al Servicio de Atención a Usuarios para la resolución de problemas informáticos que les pueda surgir al hacer uso de las distintas utilidades facilitadas por la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia.

Uno de los servicios de Intranet en el que se ha trabajado profundamente es la plataforma de e-learning, que ha quedado definida e implantada de cara a la incorporación de cursos de formación on-line a partir de 2009.

En cuanto a la Intranet se ha convertido en la herramienta de trabajo para toda la Administración de Justicia del Paía Vasco y por ello está en continuo crecimiento (incorporación de nuevas funcionalidades) y mejora de los servicios ya prestados.

7- Instrumentalizar las actuaciones necesarias en materia económica para dar cumplimiento a la Ley Orgánica del Tribunal del Jurado.

Durante el ejercicio 2008 se han celebrado en la Comunidad Autónoma del País Vasco 3 juicios con Jurado y se han organizado y atendido todas las necesidades de manutención y

aurreikusitako kalte-ordain guztiak ordaindu ere.

alojamiento derivados de los mismos, así como el pago de las indemnizaciones legalmente previstas.

8. Prozedura judizialek adituen txostenei dagokienez sortutako beharrei erantzutea.

Justizia Administrazioak eskatutako peritu-frogei dagokienez, Sailburuordetzaren Peritazio Zerbitzuak 4.361 egin ditu, eta, kanpoko kontratuen bidez, beste 282. Orobat, doako laguntza juridikoko onuradunek eskaturik, Euskal Administrazio Orokorreko teknikariek 20 egin dituzte (Gabinete Kabinete Psikosozialak, Auzitegiko Klinikak, Ertzaintzak, etab.)

2003ko apirilaren 28an Epaiketa Azkarren Legea indarrean hastearen ondorioz, nabarmen areagotu dira perituen premiazko esku-hartzeak, eta behar horri zegokion erantzuna eman zaio, legea bera garatzeko oinarrietariko bat delako.

Para afianzar el Servicio de Peritaciones las tres oficinas se encuentran plenamente informatizadas con conexión a internet, a la oficina judicial y programa informático de registro de peritaciones.

Asimismo, en relación con la Instrucción para la determinación de las clases de informes periciales y la obligación de su emisión en plazos predeterminados, puede afirmarse que se están cumpliendo en plazo.

8- Dar respuesta a las necesidades generadas por los procedimientos judiciales en materia pericial.

Para la atención a las pruebas periciales demandadas desde la Administración de Justicia se han realizado 4.361 por parte del Servicio de Peritaciones de la Viceconsejería y 282 a través de contrataciones externas. Asimismo, a instancias de beneficiarios de asistencia jurídica gratuita se han realizado 20 por personal de la Administración Vasca (Gabinete Psicosocial, Clínica Médico-Forense, Ertzaintza, etc.).

Derivado de la entrada en vigor el 28 de abril de 2003 de la Ley de Juicios Rápidos, se requiere la realización de un importante número de actuaciones periciales urgentes, dándose la oportuna cobertura dado que se trata de una de las bases para el desarrollo de la propia ley.

Para afianzar el Servicio de Peritaciones las tres oficinas se encuentran plenamente informatizadas con conexión a internet, a la oficina judicial y programa informático de registro de peritaciones.

Asimismo, en relación con la Instrucción para la determinación de las clases de informes periciales y la obligación de su emisión en plazos predeterminados, puede afirmarse que se están cumpliendo en plazo.

9. Justizia Administrazioa ikertzeko eta bere berri emateko jarduerak garatzea

2008an, Justizia Administrazioaren Behatokiarekin lankidetzan, genero-indarkeria eta familia barruko biolentziari buruzko kongresu bat egin da martxoaren 7 eta 8an.

Era berean, Euskadiko epaitegietan ematen diren genero-indarkeriaren arloko epaiei buruzko ikerketa egin da Zaragozako Unibertsitatearen laguntzarekin.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, justizia-jauregiak ezagutzeko ibilbide didaktikoak egin dira. oso arrakastatsuak izan dira; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 6.112 ikaslek hartu dute parte.

Beste unitate didaktiko bat diseinatu dugu, azken lege-aldaketak jasotzen dituena eta irakasle zein ikasleentzat ulerterrazagoa dena.

9. Desarrollo de actuaciones de difusión y estudio de la Administración de Justicia.

Durante el año 2008, en colaboración con el Observatorio de la Administración de Justicia se ha celebrado un congreso sobre violencia de género e intrafamiliar en fechas 7 y 8 de marzo.

Asimismo, se ha desarrollado un estudio sobre las sentencia en materia de violencia de género en los Juzgados de Euskadi con la colaboración de la Universidad de Zaragoza.

Se han realizado itinerarios didácticos por los Palacios de Justicia en colaboración con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, en los que han participado con gran éxito 6.112 escolares de la ESO.

Se ha diseñado una nueva Unidad Didáctica, que incorpora las últimas modificaciones legales y más asequible a profesores y alumnos.

**2.)**

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin lankidetzan aritzea, karrera judizialeko eta bake-epaitegiko kideak prestatzen.

Prestakuntza-hitzarmena luzatuta, guztira 10 ikastaro egin dira, 175 epaile eta magistraturen partaidetzarekin. Emandako gaiak, batez ere, honakoak izan dira: Erregistro Zibilaren egungo arazoak, kontsumoko kode berria, lan-arloko jurisdikzioa, bide-segurtasunaren inguruko arazoak, etab.

Hitzarmen horri esker garatutako bestelako jarduerak hauexek dira: ordezkatutako epaile eta ordezko magistratuentzako tutoretzat (4) eta argitalpenak.

Bake-epaileentzako prestakuntzako jardunaldi espezifikoak garatu dira, guztira 65 parte hartzaile hartuta.

***2.)***

1. Cooperar con el Consejo General del Poder Judicial en la formación de los miembros de la Carrera Judicial y de los Juzgados de Paz.

Producida la prórroga del Convenio de formación, se han celebrado cursos (10) con la asistencia de 175 Jueces y Magistrados participantes. Las materias impartidas han versado fundamentalmente sobre problemas actuales del Registro Civil, nuevo Código de consumo, jurisdicción social, así como de la problemática derivada de la seguridad vial, etc…

Otras actividades que han tenido su desarrollo en dicho Convenio: tutorías para jueces sustitutos y magistrados suplentes (4) y publicaciones.

Se han desarrollado unas Jornadas específicas de formación para Jueces de Paz con un número de 65 asistentes.

Horretaz gain, aipatutako prestakuntza-jardueretara landutako gaiekin zerikusirik duten bestelako taldeetako 150 pertsona baino gehiago joan dira: ekonomilariak, abokatuak, prokuradoreak, eta abar.

Orobat, 2009. urterako prestakuntza-jarduerak taxutu dira.

2. Ikerketa Judizialen Zentroarekin lankidetzan aritzea, karrera fiskaleko eta idazkari judizialen elkargoko kideak prestatzen.

Fiskalak eta idazkari judizialak prestatzeko Justizia Ministerioko Azterlan Juridikokoen Zentroarekin 1998ko maiatzean sinatutako hitzarmenaren ondorioz, idazkari judizial eta fiskalentzako 4 ikastaro egin dira, zeinetan 100 idazkari eta fiskal izan baitira, eta gehien bat honako gaiok landu dira bertan: nazioarteko lankidetza juridikoa, prozesuaren erreformak eta bulego judizial berria, famila-arloko epaien betearazpena, etab.

2008a bitartean ere jarraitu da talde horiek guztiak euskalduntzen. Era berean, 2009an garatu beharreko jarduerak egituratu dira.

3. Legelarien Euskal Kontseiluarekin lankidetzan aritzea, euskal abokatuei etengabeko prestakuntza emateko eta beroiek euskalduntzen.

Bi erakundeok lankidetza-hitzarmen bat sinatu dugu 2007ko abenduan, bion artean prestakuntza, euskalduntze eta lankidetza instituzionaleko jarduerak egiteko. Bestalde, Jarraipen Batzordeak bilera bat egin du.

Euskaraz zein gazteleraz guztira 15 ikastaro egin dira, oso harrera ona lortuta, hori guztia etengabeko prestakuntzako programari jarraiki; orobat, euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dira, eta beste bat euskara juridikoari buruzkoa.

Era berean, 2009. urtean garatu beharreko jarduerak egituratu dira.

**3.)**

1. Euskararen erabilera normalizatzeko Legea Justizia Administrazioan aplikatzea.

Orobat 2008 urte honetan, 2007an garatutako euskararen erabilera normalizatzeko neurriak aplikatzen jarraituko dugu.

2. Estamentuen arteko lankidetza bultzatzea, agiriak, itaunketak eta idazkiak ele bietan argitaratzeko.

Hizkuntza juridikoan euskara normalizatzeko eta batzeko Batzordeak agiri judizialetako euskara normalizatzen jarraitu du; 13 urte darama lanean batzorde horrek. Hala, 2008ean, 433 agiri itzuli, zuzendu eta berrikusi dira; horietako asko euskararen erabilpena sustatzeko esperientzietan parte hartzen duten organo judizialentzat eta erregistro zibilentzat.

Bestalde, eta aurreko urteetan hasitako lanari jarraiki, jarraitu da normalizatutako agiri guztien ereduak JustiziaNET orrian sartzen.

3. Hizkuntza juridikoa batzearen alde egitea.

Hizkuntza juridikoa batzeko eta estandarizatzeko lanari zabalkundea emate aldera, eta hura zaintze aldera, formulario judizialetako terminoen hustuketa, web-orrian txertatua, zenbait euskarritan prestatu eta banatu da.

A las actividades de formación precitadas también han asistido más de 150 personas de otros colectivos relacionados con los temas tratados: abogados, economistas, abogados, procuradores, etc.

Asimismo, se han diseñado las actividades de formación para el año 2009.

2- Colaborar con el Centro de Estudios Judiciales en la formación de los miembros de la Carrera Fiscal y del Cuerpo de Secretarios Judiciales

Fruto del convenio suscrito en mayo de 1998 con el Centro de Estudios Jurídicos del Ministerio de Justicia para la formación de Fiscales y Secretarios Judiciales, se han realizado 4 cursos para Secretarios Judiciales y Fiscales con una asistencia de más de 100 Secretarios y Fiscales, actividades que han versado fundamentalmente sobre la cooperación jurídica internacional, las reformas procesales y la nueva oficina judicial, ejecución de sentencias de familia, etc.

También durante 2008 se ha continuado con la formación en euskera de estos colectivos. Igualmente se han estructurado las actividades a desarrollar en el año 2009.

3- Colaborar con el Consejo Vasco de la Abogacía en la formación continua y euskaldunización de los Abogados Vascos.

Se ha procedido a la firma en diciembre-2007 de un convenio de colaboración para la realización de actividades conjuntas en materia de formación, euskaldunización y cooperación institucional.suscrito entre ambas instituciones. Asimismo se ha celebrado una reunión de la Comisión de Seguimiento.

Se han realizado, tanto en castellano como en euskera, un total de 15 cursos, con gran acogida, dentro del programa de formación continua así como actividades de potenciación del euskera jurídico.

Igualmente se han estructurado las actividades a desarrollar en el año 2009.

***3.)***

1. Aplicación de la Ley de Normalización del Uso del euskera en la Administración de Justicia.

En el 2008 se ha continuado en la aplicación de medidas de normalización lingüística desarrolladas en 2007.

2. Impulsar la cooperación entre los diferentes estamentos para la elaboración de documentos, cuestionarios e impresos bilingües.

Se ha continuado con la labor de normalización en euskera de documentos judiciales por parte de la Comisión de Normalización y Unificación de euskera del Lenguaje jurídico, la cual viene trabajando desde hace 13 años. En el año 2008 se han traducido, corregido y revisado 433 documentos, gran parte de ellos para los órganos judiciales participantes en las Experiencias de Fomento del uso del euskera y .registros civiles.

Por otro lado, y continuando con la labor iniciada en años anteriores, se han seguido insertando en JustiziaNET todos los modelos de documentos normalizados.

3. Velar por la unificación del lenguaje jurídico.

Con el fin de dar difusión al trabajo de unificación y estandarización del lenguaje jurídico, y de velar por el mismo, se ha preparado en distintos soportes y distribuido el vaciado de términos de los formularios judiciales insertado en la página web.

Legezko testuen itzulpenari dagokionez, eta Sailak eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak gehien erabiltzen diren legezko testuak euskaratzeko sinatutako hitzarmenaren ondorioz, 2008 urtean, merkataritzako legeen hirugarren liburukia argitaratu da.

Era berean, Euskal Herriko Unibertsitatearekin legezko testuak itzultzeko lankidetza-hitzarmenaren barruan, 2008. urtean honako lanak egin dira: Legeak 7 itzuli eta argitaratzea (Gizarte Segurantzako Lege Nagusia), Legeak 8 argitaratzea (Jabego Intelektualaren Legea), Legeak 9 itzuli eta argitaratzea (Enplegu Legea) eta Legeak 11 itzuli eta argitaratzea (Lur Zoruaren Legea), Aldi Baterako Enpresei buruzko Legea eta Lan-arloko Arau Hausteei eta Zigorrei buruzko Legea itzuli eta argitaratea.

En cuanto a la traducción de textos legales, y dentro del marco del Convenio suscrito entre el Departamento y el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto para la traducción al euskera de los textos legales más usuales, el año 2008 se ha publicado el tercer volumen de leyes mercantiles.

Asimismo, dentro del marco del convenio de colaboración con la UPV para la traducción de textos legales, en el 2008 se han realizado los siguientes trabajos: traducción y publicación de Legeak 7 (ley General de la Seguridad Social), publicación de Legeak 8 (Ley de Propiedad Intelectual), traducción y publicación de Legeak 9 (Ley de Empleo) y Legeak 11 (Ley del Suelo), traducción y publicación de la Ley de Empresas de Trabajo Temporal y la Ley de Infracciones y Sanciones de Orden Social.

4. Justizia Administrazioaren eremuan itzultzaile eta interprete lanak egiten dituzten langileen etengabeko prestakuntza.

Itzultzaile eta interprete lanetan dabiltzan langileei ematen zaien prestakuntzaren ildotik aurten Wordfast ikastaroa antolatu da. Ikastaroa IVAPek eman du eta 2008ko maiatzean eta ekainean burutu da.

4. Formación continuada del personal que trabaja en labores de traductor-intérprete en el ámbito de la Administración de Justicia.

Dentro de la formación que se ofrece al personal que trabaja en labores de traductor-intérprete este año se ha realizado un curso de wordfast que ha impartido el IVAP El curso se ha realizado en mayo y junio de 2008.

5. Organo judizialetan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak.

2008ko lehen seihilekoan barruti judizial bakoitzeko erabilera planak idatzi eta bukatu dira eta honako atal hauek jaso dira: barruti bakoitzaren euskararen egoera (erabilera datuak, AMIA matrizea, motibazioa), datozen 10 urteetan martxan jarriko diren estrategia eta politikak, eta urteroko ekintza planak. Ekintza horien helburua da langileen euskara-ezagutza hobetzea, motibazioa sustatzea eta euskararen erabilera handitzea bulego judizialetan.

Hori lortzeko, 2008 urtean EAEko barruti judizial guztietara hedatu dira ahozko eta idatzizko formazio saioak, trebatzaileek emanda, eta oro har ematen den formazio hori bateratu egin da bai eduki aldetik, erritmo aldetik eta bai maiztasun aldetik ere. Hori dela eta, barruti judizial bakoitzeko ekintza zehatz asko ere bateratu dira.

Bestalde, barruti judizial guztietako errotuluak aztertu ditugu eta baita eguneratu ere, behar izan den kasuetan. Aipatu beharra dago errotulu formalez gain, ez formalak ere aztertu eta normalizatu direla.

Dokumentu judizialei dagokienez, 2008. urtean nabarmen sakondu eta aurreratu dugu dokumentu judizial elebidunak eta euskarazkoak sortzeko eta sustatzeko. Gaur egun dokumentu judizialak sortzeko tramitazio sistema bi daude: bulego judizial zaharra eta JustiziaBat berria. Bietan ordezkatu dira dokumentu elebidunak, kasu gehienetan EAE osoan, eta JustiziaBaten kasuan barruti judizial jakin batzuetan baino ez: Eibar, Donostia eta Gasteiz. Aipatu beharra dago JustiziaBatek aukera eta baliabide berri ugari eskaini dizkiela langileei euskaraz ere lan egin ahal izateko, esaterako, itzulpen tresnak, kontsulta zerbitzua, testu-eskaintza, etab. Aurrera gehien egin dugun jurisdikzioak hauexek dira: lehen auzialdia, instrukzioa, lan arloa eta erregistro zibila.

2008. urtean hizkera juridikoari buruzko material didaktikoa amaitutzat eman da. Material horren bidez, euskara gaitasun prozesua amaituta edo ia amaituta duten langileei eguneroko lanean idatzi juridikoak sortzeko gaitasuna eman nahi izan zaie.

Bestealde, kontsulta zerbitzua sortu da Justizia Administrazioko profesional guztientzako, hizkuntza eta termino zalantzei erantzuna emateko.

Bilboko Lan Arloko 3 zenbakiko epaitegian esperientzia bat ipini da martxan, euskararen erabilera sustatzeko bai tramitazio osoan eta bai ahozko judizioan ere. Horretarako, dokumentu sorta bat normalitzatu da eta eskura jarri zaie abokatuei, eta ekimen honen berri eman zaie profesional guztiei.

5. Actuaciones de fomento del uso del euskera en los órganos judiciales

Durante la primera mitad del año 2008 se han redactado los planes de uso de cada partido judicial, en los cuales se ha recogido el análisis de la situación (datos de uso del euskera, matriz DAFO, motivación), las políticas y estrategias para los próximos 10 años, y los planes de acción de carácter anual. Las actuaciones recogidas están encaminadas a mejorar la capacitación lingüística, trabajar la motivación y fomentar el uso de euskera en las oficinas judiciales.

Por ello, durante el 2008 se han extendido a todos los partidos judiciales sesiones formativas orales y escritas impartidas por los trebatzailes, y se han unificado los contenidos, ritmos y periodicidad de las mismas, además de las actuaciones concretas propuestas en cada partido judicial.

Además, se ha revisado y actualizado en su caso, la totalidad de los rótulos de los palacios de justicia de todas las cabezas de partidos judiciales, tanto rótulos formales como no formales.

En cuanto a los documentos judiciales se refiere, en 2008 se ha avanzado y profundizado enormemente en el fomento del uso de ellos. Actualmente se encuentran conviviendo dos sistemas de tramitación de documentos judiciales: Oficina Judicial antigua y JustiziaBat. Tanto en uno como en el otro se han implantado documentos judiciales bilingües a nivel Comunidad en muchos de los casos, y a nivel partido judicial en el caso de JustiziaBat: Eibar, Donostia y Gasteiz. Cabe señalar que especialmente JustiziaBat dota de muchos recursos a los trabajadores para poder realizar su labor también en euskera, tales como sistema de traducción, propuesta de textos, servicio de consulta... Las jurisdicciones que más han avanzado en este sentido son Social, 1 Instancia, Instrucción y Registro Civil.

En el ejercicio 2008 se ha finalizado el material didáctico específico de lenguaje jurídico, con el fin de capacitar en lenguaje jurídico de cierta complejidad a los trabajadores que han finalizado o están finalizando en proceso de capacitación lingüística.

Por otro lado, se ha creado un servicio de consulta lingüístico-terminológica, al que pueden acceder todos los profesionales de la Administración de Justicia.

En el Juzgado de lo Social nº 3 de Bilbao se ha puesto en marcha una experiencia de fomento del uso del euskera que afecta tanto a todo el expediente judicial como a la vista. Para ello se ha creado una colección de documentos para los letrados y se ha dado publicidad a los profesionales de esta experiencia.

Erregistro Zibiletako erregistro liburuei eta ondorengo ziurtagiriei dagokienez, 2008. urtean Inforeg aplikazioa itzuli eta egokitu dugu, eta aplikazio horri esker, inskripzio nagusiak eta ziurtagiriak euskaraz sortzeko aukera dago. 2008ko abenduan Eibarko erregistro zibilean martxan jarri da Inforeg aplikazioa.

En cuanto a los libros de registro y posteriores certificaciones se refiere, en 2008 hemos traducido y localizado al euskera y la aplicación Inforeg, que permite realizar los asientos en los libros de registro como la emisión de certificaciones también en euskera. En diciembre de 2008 se ha implantado en el Registro Civil de Eibar.

Gainera, Bake-epaitegietarako bereziki sortutako Epainet aplikazioa garatzen eta hedatzen jarraitu dugu. Aplikazio horri esker, bake-epaitegietako eguneroko idatzizko tramitazioa elebitan sortzen da Epainet instalatuta duten epaitegietan. Hori dela-eta, asko igo da erabilera-programetan sartuta dauden Bake Epaitegien kopurua. Hori lortu ahal izan dugu Epainet garatu, mantendu, kudeatu eta hedatzeko zerbitzua sendotu egin dugulako eta bake-epaitegien dirulaguntzetan Epaineten erabilera saritu dugulako.

Además, se ha continuado desarrollando la aplicación informática específica para los Juzgados de Paz (Epainet) de cara a la emisión cotidiana de documentos en bilingüe. Por ello, también, se han incrementado en gran manera los Juzgados de Paz inmersos en estos programas de uso. A ello han contribuido por un lado las nuevas ayudas a juzgados de paz, por su instalación y aplicación y, por otro lado, el refuerzo de servicio de mantenimiento y gestión de la aplicación Epainet.

6. Eremu honi berariaz zuzendutako euskalduntze eta alfabetatzeko plan sektorialaren garapena.

6. Desarrollo del plan sectorial de euskaldunización y alfabetización dirigido específicamente a este ámbito.

6.1. HABE, HAEE eta gaian zerikusirik duten talde guztiekin egindako lan-bilerak.

6.1. Sesiones de trabajo con HABE, el IVAP y los colectivos afectados.

HABErekin 20 bilera egin dira, batez ere, ikasleen ebaluazioen ingurukoak.

Se han desarrollado 20 reuniones con HABE para la evaluación de los alumnos.

6.2. Funtzionarioak euskalduntzeko ikastaroak.

6.2. Cursos de euskaldunización del personal funcionario.

2008/2009 ikasturtean, deialdi orokorrean 437 ikaslek parte hartu du, eta deialdi osagarria oraindik ebazteke dago. Deialdi orokorrari dagokionez, 337k 2 orduko moduluan parte hartzen dute, eta 65ek 5 ordukoan. Orobat, 18k udako ikastaroetan parte hartu dute, eta 10ek 4. hizkuntza eskakizuna prestatzen. Horrez gain, autoikaskuntza ikastaroak eskaini dira eta bertan 7 funtzionariok dihardute ikasten.

En el curso 2008/2009 el número de participantes en cursos de euskera en la convocatoria general es de 437, estando aún pendiente de resolución la convocatoria complementaria. Respecto a la convocatoria general, 337 participan en el módulo de 2 horas y 65 en el módulo de 5 horas. Asimismo, 18 han participado en los cursos de verano, y 10 en cursos para la preparación del PL4. Además, a la opción de autoaprendizaje acuden 7 funcionarios.

6.3. Karrera judizialeko, karrera fiskaleko eta idazkari judizialen kidegoko kideak euskalduntzeko ikastaroak.

6.3. Cursos de euskaldunización de los miembros de la Carrera Judicial, Fiscal y del Cuerpo de Secretarios Judiciales.

A- Euskal Autonomia Erkidegoan lanean diharduten Karrera Judizialeko kideen artean, 2008-2009 ikasturtean 28 epaile eta magistratu ari dira parte hartzen, era honetara:

- Karrera Judizialeko bat astean hiru orduko moduloan (aurrez aurreko klaseak).
- Karrera Judizialeko 4 kide ordu eta erdiko moduloan (aurrez aurreko klaseak).
- Karrera Judizialeko 4 kide egunean bi orduko moduloan (aurrez aurreko klaseak).
